PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA, TURISMO-ADIMENEKO BIG DATA PLATAFORMA BAT (TABDI) GARATZEKO ETA ABIAN JARTZEKO LANAK, ETA GIPUZKOAKO TURISMO EKOSISTEMARAKO (GTE) GFA-REN TURISMO-ADIMENEKO ETORKIZUNEKO ZERBITZUAREN (TAZ) DISEINUA ETA AHOLKULARITZA ESTRATEGIKOA KONTRATATZEKO.

I.- Sarrera

Gipuzkoako Foru Aldundiaren (GFA) 2020-2023 Plan Estrategikoa legegintzaldiko gobernu ekintzaren lidergorako tresna nagusi gisa sortu zen, eta Etorkizuna Eraikiz ekimena hartzen du Gipuzkoan sortzen ari diren erronkei eta premiei erantzuteko eta lurraldearen etorkizuna modu partekatuan eraikitzeko apustu nagusitzat.

Ildo horretan, Etorkizuna Eraikiz ekimenak adimen artifizialaren eta Big Dataren estrategia definitzeko proiektua abiarazi zuen 2020an. Aipatutako proiektuaren esparruan azterketa aldi bat egin ondoren, besteak beste, adimen artifizialaren eta Big Dataren ezaugarriekin bat datozen gaitasunak, aurrez landutako prozesuak eta jarduera eremu bat duen barne eragileetako bat Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuaren Turismo Zuzendaritza Nagusia (TZN) dela ondorioztatu da.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Turismo Zuzendaritza Nagusiaren helburua da turismo jasangarri eta ordenatu bat sortzea, lurralde osoan enplegua eta aberastasuna modu orekatuan eta banatuan sortzen lagundu, masifikazioa saihestu eta kultura patroien berezitasuna bultzatuko duena, beste kultura, hizkuntza eta balio batzuk ezagutzeko aukera emanez.

Hausnarketa horren emaitza gisa, 2021ean, honako lizitazio hau jarri zen abian: «Big Datako eta adimen artifizialeko eredu bat definitzea eta diseinatzea turismo-adimeneko sistema baterako». Proiektuan lortutako emaitzak oso arrakastatsuak izan dira, eta, horri esker, aurrera egin daiteke Gipuzkoako Foru Aldundiko Turismo Zuzendaritza Nagusiak planteatutako ibilbide orriarekin, hurrengo fasea kontratu honen bidez garatuta.

II.- Kontratuaren objektua

Lizitazio honek bi helburu ditu. Lehenik eta behin, turismo-adimeneko Big Data plataforma (TABDI) bat garatzeko eta abian jartzeko kontratazioa eskatzen da. Plataforma hori big datako eta adimen artifizialeko eredu batean oinarritzen da, eta aurreko kontratu batean diseinatu da; zehazki, izen honetakoan: «Big

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DEL DESARROLLO Y PUESTA EN MARCHA DE UNA PLATAFORMA BIG DATA DE INTELIGENCIA TURÍSTICA (TABDI) Y PARA EL DISEÑO Y CONSULTORÍA ESTRATÉGICA DEL FUTURO SERVICIO DE INTELIGENCIA TURÍSTICA (TAZ) DE LA DFG PARA EL ECOSISTEMA DEL TURISMO DE GIPUZKOA (GTE).

I.- Introducción

El Plan Estratégico 2020-2023 de la Diputación Foral de Gipuzkoa (DFG), concebido como el principal instrumento para el liderazgo en la acción de gobierno de la legislatura, reconoce a la iniciativa Etorkizuna Eraikiz como su principal apuesta para responder a los retos y necesidades emergentes de Gipuzkoa, así como para abordar la construcción compartida del futuro del territorio.

En este sentido, desde la iniciativa Etorkizuna Eraikiz se lanzó en 2020 el proyecto de definición de la Estrategia de Inteligencia Artificial y Big Data. Tras un periodo de análisis en el marco del citado proyecto, se ha identificado, entre otros, a la Dirección General de Turismo (DGT) del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural como uno de los agentes internos con capacidades, procesos previos ya trabajados y un ámbito de actividad acorde con las características de la Inteligencia Artificial y el Big Data.

El objetivo de la Dirección General de Turismo de la Diputación Foral de Gipuzkoa es generar un turismo sostenible y ordenado que contribuya a generar empleo y riqueza de forma equilibrada y repartida en el conjunto del territorio, evite la masificación y potencie la singularidad de patrones culturales, abriéndose al reconocimiento de otras culturas, idiomas y valores.

Fruto de esta reflexión, en 2021 se lanzó la licitación titulada "Definición y diseño de un modelo de Big Data e inteligencia artificial para un sistema de inteligencia turística". Los resultados obtenidos en este proyecto han sido muy exitosos, lo que permite seguir adelante con la hoja de ruta planteada desde la Dirección General de Turismo de la Diputación Foral de Gipuzkoa con el desarrollo de la siguiente fase a través del presente contrato.

II.- Objeto del contrato

Esta licitación persigue un doble objetivo. En primer lugar, se solicita la contratación del desarrollo y puesta en marcha de una Plataforma Big Data de Inteligencia Turística (TABDI) que se basa en un modelo de big-data e inteligencia artificial que ha sido diseñado en un contrato anterior titulado "Definición

datako eta adimen artifizialeko eredu bat definitzea eta diseinatzea turismo-adimeneko sistema baterako» (2021). Tresna horrek turismoari buruzko informazioaren analisi aurreratua egiteko zerbitzuak emango ditu, errazagoa izan dadin erabaki estrategikoak hartzea, TZNrentzat, sektorea osatzen duten eragile publiko zein pribatuentzat eta baita herritarrentzat ere (Gipuzkoako Turismo Ekosistema edo GTE). Adibide gisa, aipatu behar da GTEk barnean hartzen dituela Donostia Turismoa, BasqueTour–Turismoaren Euskal Agentzia, Gipuzkoako eskualde eta sektoreko elkarte profesionalak eta herritarrak, oro har.

y diseño de un modelo de Big Data e inteligencia artificial para un sistema de inteligencia turística" (2021). Esta herramienta prestará servicios de análisis avanzado de información turística para facilitar la toma de decisiones estratégicas tanto para la propia DGT como para los agentes que componen el sector, tanto públicos como privados, y como para la propia ciudadanía (Ecosistema del Turismo de Gipuzkoa - GTE). A modo de ejemplo, destacar que el GTE incluye a Donostia San Sebastian Turismoa, la Agencia Vasca de Turismo BasqueTour, las diferentes comarcas y asociaciones profesionales del sector en Gipuzkoa, y la propia ciudadanía en general.

Bigarrenik, aholkularitza estrategikoko lanak behar dira etorkizuneko Turismo Adimeneko Zerbitzuaren (TAZ) definizio eta diseinua egiteko. Lan horiek zerbitzu hori kudeatzeko plan batean zehaztuko dira, BEGIKA turismo ereduarekin bat etorriz, eta barnean hartuko dira Gipuzkoako Foru Aldundian zerbitzu horren kudeaketa eraginkorra eta dinamizazioa errazteko jarduera espezifikoak. GTEko eragile nagusiekin koordinatutako ibilbide orri baten garapena ere sartuko da.

En segundo lugar, se requieren labores de consultoría estratégica para realizar la definición y diseño del futuro Servicio de Inteligencia Turística (TAZ), que se concreten en un Plan de Gestión de dicho servicio que esté alineado con el modelo turístico BEGIKA y que incluya actuaciones específicas destinadas a facilitar la gestión eficiente y la dinamización de dicho servicio en la DFG. Se incluye también el desarrollo de una Hoja de Ruta coordinada con los principales agentes del GTE.

Gainera, nabarmendu behar da TABDI sistemak IZFEko Big Data azpiegitura erabiliko duela eta adimen artifizialeko eta Big Datako hainbat zerbitzu eskainiko dituela iturri heterogeneoetatik datozen datuak integratzeko, prozesatzeko eta aztertzeko. Hala, informazio azterketa sakonak sortu ahal izango dira, modu eraginkorrean eta kontuan hartuta Gipuzkoako sektore turistikoaren izaeraren eta beharren ikuspegi globala, GTEko eragileekin batera.

Además, se destaca que el sistema TABDI empleará la infraestructura Big Data de IZFE y proporcionará diferentes servicios de Inteligencia Artificial y Big Data con el fin de integrar datos procedentes de fuentes heterogéneas, así como procesar y analizar los mismos, propiciando la generación de análisis exhaustivos de información de un modo eficaz y con una perspectiva global de lo que el sector turístico de Gipuzkoa representa y precisa en cada momento junto con los agentes del GTE.

TABDI sistemaren ezaugarri nagusien artean, honako hauek nabarmentzen dira:

Entre las características principales del sistema TABDI se destaca:

- Datuaren fidagarritasuna eta gobernantza. Bildutako informazioak fidagarritasun egiaztatua izan beharko du; beraz, balio nabarmena du dokumentu honetan proposatutako iturriak eta emaitzak aberastuko dituzten beste iturri batzuk identifikatzeak, barne hartzeak, argitaratzeak eta gobernatzeak.

- Fiabilidad y gobernanza del dato. La información recabada deberá contar con una fiabilidad contrastada, por lo que la identificación, ingesta, publicación y gobernanza de las fuentes propuestas en el presente documento, así como de otras adicionales a futuro que enriquezcan los resultados, constituye un valor destacado.

- Egitura irekia. TABDIa tresna ireki bat da, etengabe hedatzen eta eboluzionatzen ari dena, erabakiak hartzeko datu interesgarriak eskura jarri nahi dituena eta, lehentasunez, kode irekiko tresnen erabileran eta integrazioan oinarrituko dena.

- Estructura abierta. El TABDI se entiende como una herramienta abierta, en constante expansión y evolución, que busca disponibilizar datos de interés para la toma de decisiones y que se basa, preferencialmente, en el uso e integración de herramientas de código abierto.

- Genero-ikuspegia. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea eta lege horren bigarren aldaketa betez (1/2022 Legearen bidez egin zen aldaketa), datu guztiak bildu, ustiatu eta aztertuko dira sexuaren aldagaia kontuan hartuta

- Perspectiva de género. En cumplimiento de la Ley 4/2005 para la Igualdad de Mujeres y Hombres y la segunda modificación de la misma, operada por la Ley 1/2022, la totalidad de los datos se recogerá, explotará y analizará teniendo

eta gainerako aldagaiekin gurutzatuta, kontuan hartuta, gainera, beste aldagai batzuk edo diskriminazio-faktore batzuk, 3.1. artikulua, 4/2005 Legearena. Adierazle berriak sartzeko aukera aztertuko da, emakumeek eta gizonek turismoaren arloan dituzten balio, rol, egoera, baldintza, jomuga eta beharrizanetan dauden desberdintasunak hobeto ezagutzeko. Dauden definizio estatistikoak berrikusi eta, hala badagokio, egokitu egingo dira, emakumeen lana aintzatesten eta baloratzen laguntzeko eta emakume-kolektibo jakin batzuen estereotipazio negatiboa saihesteko.

en cuenta la variable sexo y cruzándola con el resto de variables, teniendo en cuenta además otras variables o factores de discriminación recogidas en el último párrafo del art. 3.1. de la Ley 4/2005. Se estudiará la posibilidad de incluir nuevos indicadores que posibiliten un mejor conocimiento de las diferencias en los valores, roles, situaciones, condiciones, aspiraciones y necesidades de mujeres y hombres en el ámbito del turismo. Se revisarán y en su caso, adecuarán las definiciones estadísticas existentes con objeto de contribuir al reconocimiento y valoración del trabajo de las mujeres y evitar la estereotipación negativa de determinados colectivos de mujeres.

- Pertsonalizazioa. TABDIak Gipuzkoako turismo sektore osoari eman nahi dio zerbitzua, eta, beraz, GTEa osatzen duten eragile guztiei emango die zerbitzua, egindako analisien irisgarritasun eta zehaztasun maila desberdinak ikusteko aukera ematen duten ikuspegi pertsonalizatuen bidez.

- Personalización. El TABDI persigue dar servicio al sector del Turismo de Gipuzkoa en su totalidad, por lo que dará servicio a los diferentes agentes que componen el GTE a través de vistas personalizadas con diferentes niveles de acceso y granularidad de los análisis realizados.

- Bizkortasuna. TABDIa IZFEren Big Data azpiegituraren gainean exekutatzen da, eta hortaz errendimendu handia eta prestazio teknologiko handiak ditu etorkizunean egokitzapenak egin ahal izateko eta datu iturri berriak edo informazioa tratatzeko teknologia berriak sartzeko.

- Agilidad. El TABDI se ejecuta sobre la infraestructura Big Data de IZFE lo que le confiere un alto rendimiento y unas elevadas prestaciones tecnológicas que permiten futuras adecuaciones y la incorporación de nuevas fuentes de datos o de nuevas tecnologías de tratamiento de la información.

TAZek izan beharko dituen ezaugarri nagusien artean, honako hauek nabarmentzen dira:

Entre las características principales que deberá contar el TAZ se destaca:

- Izaera aglutinatzailea. Lehendik dauden eta Gipuzkoako Turismo Ekosistemako beste eragile batzuek garatu dituzten tresna digitalen edukiontzi bat izango da, TAZen helburuaren araberakoa. Horrela, informazio osagarri interesgarriak bildu eta fusionatu ahal izango ditu.

- Carácter aglutinador. Contenedor de diferentes herramientas digitales ya existentes y desarrolladas por otros agentes del Ecosistema de Turismo de Gipuzkoa con un objetivo alineado al del TAZ. De manera que pueda abarcar y fusionar informaciones complementarias de interés.

- Parte hartzeko aukera. Gipuzkoako Turismo Ekosistemako eragile pribatuek erraz elikatu ahal izan behar dute datu eguneratuekin, balio erantsia eskain diezaien TAZen erabiltzaile guztiei eta datuak hornitzen dituzten elkarte zein enpresei.

- Carácter participativo. Facilidad para ser alimentado con datos actualizados por parte de los agentes privados del Ecosistema de Turismo de Gipuzkoa, ofreciendo un valor añadido tanto a los diferentes perfiles usuarios del TAZ como a las propias asociaciones y empresas proveedoras de los datos.

- Erabakiak hartzeko orientazioa. Datuak aztertzeko lana sinplifikatu eta erraztu beharko du, lagungarria izan dadin erabakiak hartzeko eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Turismo Zuzendaritza Nagusiaren estrategia epe laburrean abiarazteko ekintza zehatz bihurtzeko.

- Orientación a la toma de decisiones. Simplificar y facilitar la tarea de análisis de los datos de cara a favorecer la toma de decisiones y traducir la estrategia de la Dirección General de Turismo de la Diputación Foral de Gipuzkoa en acciones concretas a poner en marcha a corto plazo.

- BEGIKA ereduarekin bat etortzea. BEGIKA izango da TAZen egiten diren jarduera guztietarako esparrua.

III.- Zereginak

Kontratuan, zehazki, zeregin hauek sartzen dira:

1.- TABDIren gordailu bateratuaren garapena

Gordailu bateratua IZFEren Big Data plataformaren gainean garatu beharko da, hau da, STRATIO merkataritza soluzioaren inplementazio baten gainean. Gordailu bateratuan ezarri beharreko betekizunak I. ERANSKINEAN aurkezten dira zehatz-mehatz.

2.- Iturrien katalogoa TABDIn sartzea

II. ERANSKINEAN jasotako Datu Iturrien Katalogoan aurkezten diren datu iturri guztiak TABDIren barnean sartzeko eta gordetzeko lanak ere egin behar dira. Haietako batzuk publikoak dira, eta beste batzuk, berriz, ordainpekoak. Ordainpeko datuak kontratu honen enpresa adjudikaziodunak eskuratu behar ditu, bere kontura, eta 2022ko uztaileko, abuztuko eta irailetko informazioa izan beharko dute. Gainera, bereziki baloratuko dira identifikatutako datu iturriak etorkizunean barnean hartu, eguneratu eta mantentzeko lanak automatizatzen duten proposamenak. Era berean, kontratu honek irauten duen bitartean detektatzen diren iturri osagarri interesgarriak sartu beharko dira barnean.

3.- TABDIren datuen gobernua, kalitatea eta negozio-glosarioa

Datuen gobernuari, datuak plataforman argitaratzeari eta haien kalitatea bermatzeari lotutako lanak egin behar dira. Horretarako, metadatuetan eta segurtasun ezaugarrietan oinarrituta katalogatu behar dira datuak, kalitatezko arauak aplikatu behar dira eta negozio-glosario bat eraiki behar da, teknologia semantikoen bidez plataforman gobernatutako datuei esanahia emateko.

4.- TABDIren Adierazleen Panela garatzea

Adierazleen panel bat garatu behar da, gordailu bateratuan sartutako datuetatik elikatuko dena. Panelean ezarri beharreko adierazleak III. ERANSKINEAN daude jasota. Gainera, nabarmendu behar da Analisirako Panelak pertsonalizagarria izan behar duela, eta TAZeko kudeaketa-taldeari emaitzen zehaztasuna arin doitzeko aukera eman behar diola, GTEn parte hartzen duten eragileen beharretara egokitzeko.

- Conformidad con el modelo BEGIKA. BEGIKA servirá de marco para todas las actuaciones que se realicen en el TAZ.

III.- Tareas

De forma detallada, el contrato comprende las siguientes tareas:

1.- Desarrollo del Repositorio Unificado del TABDI

El Repositorio Unificado deberá ser desarrollado sobre la plataforma de Big Data de IZFE, que es una implementación de la solución comercial STRATIO. Los requisitos de detalle a implementar del Repositorio Unificado se presentan en el ANEXO I.

2.- Ingesta del Catálogo de Fuentes en el TABDI

Se deben realizar también los trabajos de ingesta y almacenamiento de todas las fuentes de datos que se presentan en el Catálogo de Fuentes de Datos recogido en el ANEXO II. Algunas de ellas son de carácter público y otras son de pago. Los datos de pago deben ser adquiridos a su cargo por la empresa adjudicataria del presente contrato y deben cubrir la información correspondiente a los meses de julio, agosto y septiembre de 2022. Además, se valorará especialmente aquellas propuestas que automaticen tanto la ingesta como la actualización y el mantenimiento a futuro de las fuentes de datos identificadas. Del mismo modo, se requiere la ingesta de fuentes adicionales puntuales de interés que se detecten durante la duración del presente contrato.

3.- Gobierno del dato, calidad y glosario de negocio en el TABDI

Se deben realizar los trabajos relacionados con el gobierno de los datos, su publicación en la plataforma y el aseguramiento de su calidad. Para ello, se requiere catalogar los datos en base a metadatos y atributos de seguridad, aplicar reglas de calidad y construir un glosario de negocio que mediante tecnologías semánticas dote de significado a los datos gobernados en la plataforma.

4.- Desarrollo del Panel de Indicadores del TABDI.

Se debe desarrollar un Panel de Indicadores que se nutra de los datos ingestados en el Repositorio Unificado. Los indicadores a implementar en el Panel se recogen en el ANEXO III. Además, se destaca que el Panel de Análisis debe ser personalizable y permitir el ajuste de la granularidad de los resultados de forma ágil por el equipo de gestión del TAZ para adaptarlo a las diferentes necesidades de los agentes que participan en GTE. Para ello, el Panel

Horretarako, Adierazleen Panelak hiru sarbide maila izango ditu, oro har:

1) Erakundeen maila, TZNrentzat eta erakunde publiko garrantzitsuentzat, hala nola Donostia Turismoa, BASQUETOUR, Gipuzkoako eskualdeak, etab.

2) Enpresen maila, GTEko eragile pribatuentzat.

3) Maila publikoa, herritarrentzat, oro har.

5.- TABDIren hedapena, pilotajea eta ebaluazioa

Kontratu honek TABDI abian jarri, pilotatu eta ebaluatzeko lanak ere hartuko ditu barnean. Ebaluazioan TZNk berak eta GTEko agente adierazgarriek hartuko dute parte. Pilotajea eta ebaluazioa arrakastaz egin ahal izateko, ezinbestekoa da TABDIn osorik sartzea eta argitaratzea Datu Iturrien Katalogoan adierazitako iturri guztiak (II. eranskina) eta dagozkien adierazleak (III. eranskina).

6.- TABDIren prestakuntza eta transferentzia teknologikoa

Erabiltzailearen eskuliburu bat sartu beharko da, eta TAZeko kudeaketa-taldeak TABDI behar bezala erabiltzen duela bermatzeko beharrezkoak diren prestakuntza ekintza guztiak garatu beharko dira. Era berean, neurri zehatzak sartu behar dira IZFEko langileei TABDIren transferentzia teknologiko osoa egiten zaiela bermatzeko.

7.- Turismo Adimeneko Zerbitzuaren (TAZ) definizioa

GFAko Turismo Zuzendaritza Nagusiari laguntza eman beharko zaio Turismo Adimeneko Zerbitzua (TAZ) definitzeko; bete beharreko helburuak eta ezarri beharreko kudeaketa eredua, beharko diren lanbide profilak eta urteko aurrekontuen zenbatespena zehazteko; eta jarduera guztiak planifikatu eta eraginkortasunez kudeatzen laguntzeko. Jarduketa horiek guztiak TZNren BEGIKA ereduaren esparruan egingo dira eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako irizpideak kontuan hartuta. Informazio horrekin guztiarekin, dokumentu entregagarri bat egingo da, honako izenburu hau izango duena: «TAZen diseinua eta kudeaketa plana».

8.- TAZen gobernantza estrategikoa GTErekin

Zeregin horretan, laguntza eman behar zaio Turismo Zuzendaritza Nagusiari GTErekiko gobernantza eta etengabeko komunikazioa koordinatzeko, proiektu

de Indicadores constará, de forma general, de tres niveles de acceso:

1) Nivel Institucional para DGT y organismos públicos relevantes como Donostia Turismoa, BASQUETOUR, Comarcas de Gipuzkoa, etc.

2) Nivel empresarial para los agentes privados del GTE.

3) Nivel público para la ciudadanía en general.

5.- Despliegue, pilotaje y evaluación del TABDI

El presente contrato cubrirá también la puesta en marcha, pilotaje y evaluación del TABDI. En la evaluación participarán tanto la propia DGT como agentes representativos del GTE. Para que el pilotaje y la evaluación se puedan llevar a cabo con éxito se considera imprescindible la completa incorporación y publicación de todas las fuentes indicadas en el Catálogo de Fuentes de Datos (Anexo II) y de los correspondientes indicadores (Anexo III) en el TABDI.

6.- Formación y transferencia tecnológica del TABDI

Se deberá incluir un manual de usuario y se deberán desarrollar todas aquellas acciones formativas necesarias para garantizar el correcto manejo del TABDI por parte del equipo de gestión del TAZ. Del mismo modo, se deben incluir medidas concretas para asegurar la completa transferencia tecnológica del TABDI al personal de IZFE.

7.- Definición de Servicio de Inteligencia Turística (TAZ)

Se deberá dar apoyo a la Dirección General de Turismo de DFG en la definición del Servicio de Inteligencia Turística (TAZ), objetivos a cumplir, modelo de gestión a instaurar, selección de perfiles profesionales necesarios, estimación de presupuestos anuales, así como dar soporte en la planificación y gestión eficaz de todas sus actividades. Todas estas actuaciones se realizarán dentro del marco del modelo BEGIKA realizado por la DGT y teniendo en cuenta criterios de igualdad de mujeres y hombres. Con toda esta información se elaborará un documento entregable titulado "Diseño y Plan de Gestión del TAZ".

8.- Gobernanza Estratégica del TAZ con el GTE

En esta tarea se debe dar apoyo a la Dirección General de Turismo en la coordinación de la gobernanza y comunicación permanente con el GTE

honetan eta etorkizunean TAZen inplikatuko dela ziurtatzeko, eta, bereziki, eragile hauekin bat datorrela bermatzeko: Donostia Turismoa, BasqueTour–Turismoaren Euskal Agentzia, Gipuzkoako eskualdeak eta sektoreko elkarte profesionalak, eta herritarrak, oro har.

9.- Aplikazioa

Fase honetan lortutako lehen emaitzak aztertu, eta Turismo Zuzendaritza Nagusiaren ekintzetara eraman beharko dira, BEGIKA eredu turistikoari jarraituz, eta horien balorazioa ere egin beharko da.

10.- Ekintza planaren definizioa

Azkenik, TABDIren zein TAZen inguruko zeregin horietan guztietan lortutako emaitzetan oinarrituta, ekintza plan bat idazten lagundu beharko zaio Turismo Zuzendaritza Nagusiari. Plan horretan, proiektua amaitu ondoren zer ekintza hasi behar diren zehaztuko da, lortutako emaitzak ahalik eta gehien aprobetxatzeko eta TAZ ahalik eta lasterren abiaraz dadin Turismo Zuzendaritza Nagusiaren zorroko zerbitzu gisa.

Era berean, kontratatu beharreko datu osagarrien tipologia eta Turismo Zuzendaritza Nagusiak gaur egungo BEGIKA turismo ereduaren helburu estrategikoen arabera egin beharreko *ad hoc* azterlan motak zehaztu beharko dira.

V.- Kontratuaren gobernantza.

Turismo Zuzendaritza Nagusiak gainbegiratuko du kontratua alderdi sektorialei dagokienez, eta IZFEk, berriz, identifikatutako informazioaren ezaugarri teknikoei eta garatzen den irtenbidearen teknologikoei dagokienez.

VI.- Kontratua gauzatzeko epea.

Exekuzio epea gehienez ere 5 hilabetekoa izango da, formalizatzen denetik hasita. Nolanahi ere, proiektuak bukatuta egon beharko du 2022ko abenduaren 31rako.

para asegurar su implicación en el presente proyecto y el TAZ a futuro, garantizando en particular la alineación con Donostia San Sebastian Turismoa, la Agencia Vasca de Turismo BasqueTour, a las diferentes comarcas y asociaciones profesionales del sector en Gipuzkoa, y la propia ciudadanía en general.

9.- Aplicación

Se deberán analizar y trasladar a las acciones de la Dirección General de Turismo, en alineación con el modelo turístico BEGIKA, los primeros resultados obtenidos en esta fase, y hacer una valoración de los mismos.

10.- Definición de Plan de Acción

Por último, sobre la base de los resultados alcanzados en todas las tareas anteriores, tanto en las correspondientes al TABDI como al TAZ, se debe dar soporte a la Dirección General de Turismo en la redacción de un Plan de Acción en el que se detalle el conjunto de acciones a iniciar tras la finalización del proyecto de cara a lograr el máximo aprovechamiento de los resultados obtenidos y la puesta en marcha lo antes posible del TAZ como servicio de cartera de la Dirección General de Turismo.

Así mismo, se deberá detallar la tipología de datos adicionales a contratar y el tipo de estudios ad-hoc a realizar por parte de la Dirección General de Turismo en función de los objetivos estratégicos del actual modelo turístico BEGIKA.

V.- Gobernanza del contrato.

La ejecución del contrato se realizará bajo la supervisión de la Dirección General de Turismo en lo referente a los aspectos sectoriales y la de IZFE en lo referente a las características técnicas de la información identificada y las tecnológicas de la solución a desarrollar.

VI.- Plazo de ejecución del contrato.

El plazo de ejecución del contrato será como máximo de 5 meses contados desde su formalización. En todo caso, debe finalizar con anterioridad al 31 de diciembre de 2022.

Donostia, 2022ko uztailaren 1a / San Sebastián, 1 de julio de 2022

Sin./Fdo.: Olatz Errazkin Amiano
ZB Etorkizuna Eraikiz

I. eranskina – Gordailu bateratuaren eskakizunak

Gordailu bateratuaren betekizun nagusiak honako hauek dira:

STRATIO

Gordailu bateratua IZFEren Big Data plataformaren gainean garatu beharko da, hau da, STRATIO merkataritza soluzioaren inplementazio baten gainean. Plataformak pila teknologiko oso bat dauka, proiektuan jasotako prozesu teknologiko guztien garapena errazten duena.

Barnean sartzea eta biltegiratzea

II. eranskinean aurkeztutako datu iturri guztiak IZFEren informazio plataforman sartu/birtualizatu behar dira. Iturriak sartzeko, IZFEk hiru biltegiratze plataforma ditu gaur egun: HDP, Postgres eta ElasticSearch. Dataset bakoitzaren formatuaren arabera, informazioa IZFErekin adostutako biltegiratze plataforman sartu beharko da. Ildo horretan, STRATIO plataforma on-premise modalitatean ezarriko denez, bateragarritasun arrazoiengatik IZFEk Hortonworks, Postgres eta ElasticSearch hartzen ditu kontuan.

Datuen autoaurkikuntza

Iturriak sartu/birtualizatu ondoren, datuen autoaurkikuntza egin behar da, STRATIOtik gobernatu ahal izateko. Plataformak automatikoki egiten duen lan bat da, eta, beraz, enpresa adjudikaziodunak denbora gutxi eskaini beharko dio. IZFErekin adostu beharko da sartu edo birtualizatuko diren datuen jatorria zein izango den.

Datu teknikoen katalogoa

Ondoren, sortutako datu teknikoen katalogoan sartu beharko dira metadatuak eta segurtasuneko atributuak. Hiztegi tekniko horretatik datuen etorkiari buruzko informazioa eskuratu ahal izango da, eta une oro egiaztatu ahal izango da zer prozesu egin diren, erakundearen datuak noiz idatzi eta kontsumitzen diren, eta haien emaitza zein den.

Negozio-glosarioa

Negozio kontzeptuak definitu beharko dira, baita plataformak gobernatutako datuei esanahi semantikoa emango dieten beharrezko ontologiak ere.

Anexo I - Requisitos del Repositorio Unificado

Los principales requisitos del Repositorio Unificado se presentan a continuación:

STRATIO

El Repositorio Unificado deberá ser desarrollado sobre la plataforma de Big Data de IZFE, que es una implementación de la solución comercial STRATIO. La plataforma cuenta con una completa pila tecnológica que facilita el desarrollo de todos los procesos tecnológicos contemplados en el proyecto.

Ingesta y almacenamiento

Se debe llevar a cabo la ingesta/virtualización de todas las fuentes de datos presentadas en el Anexo II en la plataforma informacional de IZFE. En caso de ingesta, actualmente IZFE dispone de tres plataformas de almacenamiento: HDP, Postgres y ElasticSearch. Dependiendo del formato de cada dataset, se deberá ingestar la información en la plataforma de almacenamiento correspondiente acordada con IZFE. A este respecto, por motivos de compatibilidad de la plataforma STRATIO que será implantada en modalidad on-premise, desde IZFE se contemplan Hortonworks, Postgres y ElasticSearch.

Autodescubrimiento de los datos

Una vez se han ingestado/virtualizado las fuentes, se debe realizar el autodescubrimiento de los datos para poder gobernarlos desde STRATIO. Se trata de una tarea realizada por la plataforma de forma automática, con lo que la dedicación por parte de la empresa adjudicataria será reducida. Se deberá acordar con IZFE el origen de los datos que serán ingestados o bien virtualizados.

Catálogo de datos técnicos

A continuación, se deben incluir los metadatos y atributos de seguridad en el catálogo de datos técnicos generados. Desde este diccionario técnico se podrá acceder a la información sobre el linaje de los datos, pudiendo comprobar en todo momento qué procesos, y cuando escriben y consumen los datos de la entidad y su resultado.

Glosario de negocio

Se deberán definir los conceptos de negocio y las ontologías necesarias que dotarán de significado semántico a los datos gobernados por la plataforma.

Gainera, negozio-glosarioa sortu beharko da, sortutako negozio kontzeptuei buruz beharrezkoa den informazio guztia jasotzeko. Glosarioaren helburua da jakitea zer informazio dagoen gobernatuta; zeri egiten dion erreferentzia (definizioa, ontologia, Business View kontzeptua); eta zer komunitate eta domeinu diren gobernatutako informazioaren erantzuleak edo erabiltzaileak.

Aktiboen arteko erlazioak ezartzeko aukera ere ematen du glosarioak. Hemen, gobernatutako aktiboen arteko erlazioak ezarri beharko dira. Hau da, klase ontologikoen arteko erlazioak, taula teknikoak, glosarioa, datu teknikoen katalogoa, etab.

Gainera, negozio-glosarioa gaztelaniaz eta euskaraz egin beharko da.

Datu multzoak argitaratzea

IZFErekin adostu beharko da datu multzo bakoitza argitaratzeko modurik eraginkorrena. Horretarako, honako hauek argitaratu ahal izango dira:

- Business Entities: entitate logikoekin 1:1 erlazioa duten entitate teknikoak argitaratzea.
- Business Views: erlazionatutako entitate tekniko bat edo gehiago argitaratzea entitate logiko batean.
- Ontology Business Views: entitate bat OWL ontologiak erabiliz argitaratzea.

Era berean, IZFErekin adostu beharko da datu multzo bakoitza argitaratzeko modua, finkatzen diren beharren arabera:

- REST zerbitzuaren formatuan (API)
- JDBC konexio bidez
- Analitika aurreratuko tresna baten bidez
- Bistaratzeko tresna baten bidez
- STRATIOren Data Marketplace

Kalitate-arauak

BDL (Business Data Layer) geruzan azaldutako datuen kalitatea kontrolatzea eta monitorizatzea ahalbidetuko duten kalitate arauak definitu behar dira. Geruza hori goi-mailako zerbitzuek eta aginte-taulek kontsumituko dute. Kalitate arauez gain, negozio kontzeptu bakoitzeko *dashboard* bat garatu beharko da, begi kolpe bizkor batean

Además, se deberá generar el glosario de negocio para incluir toda la información necesaria acerca de los conceptos de negocio creados. El objetivo de este Glosario es poder conocer qué información está gobernada y a qué hace referencia (definición, ontología, concepto de la Business View) así como qué comunidad y dominio son responsables o usuarios de la información gobernada.

El glosario también permite establecer las relaciones entre activos. Aquí se deberán establecer las relaciones entre los activos gobernados. Esto es, relaciones entre clases ontológicas, tablas técnicas, glosario, catálogo de datos técnicos, etc.

Además, el glosario de negocio se debe realizar tanto en castellano como en euskera.

Publicación de los conjuntos de datos

Se deberá acordar con IZFE el modo más eficiente de publicación de cada conjunto de datos. Para ello, se podrán publicar:

- Business Entities: Consistente en la publicación de entidades técnicas con relación 1:1 con las entidades lógicas
- Business Views: Publicación de una o más entidades técnicas relacionadas en una entidad lógica.
- Ontology Business Views: Publicación de una entidad mediante el uso de ontologías OWL.

Asimismo, se deberá acordar con IZFE la modalidad de publicación de cada uno de los conjuntos de datos dependiendo de las necesidades de que se establezcan:

- En formato servicio REST (API)
- Mediante conexión JDBC
- Mediante herramienta de analítica avanzada
- Mediante herramienta de visualización
- Data Marketplace de STRATIO

Reglas de calidad

Se deben definir las reglas de calidad que permitan controlar y monitorizar la calidad de los datos expuestos en la capa BDL (Business Data Layer) que será consumida por los servicios y cuadros de mando superiores. Además de las reglas de calidad, se deberá desarrollar un *dashboard* por cada concepto de negocio que permita conocer la calidad de cada Business View de un vistazo rápido.

